

HERRITARREN PARTEHARTZEA.

BILERA. HERRIAREN ERDIALDEA.

EGUNA: 2014KO URRIAREN 10EAN

Proposamena, id.

SAILA:

LABURPENA.

ERANTZUNA.

Alkatetza	Udalaren web-gunea egunean edukitzea eskatu du.	2014ko amaieran komunikazioan aditua den pertsona bat kontratatu zen web-gunea kudeatzeko. Egunero sartzen ditu albisteak eta abisuak.
Alkatetza	Garbitasunaren inguruan Udalak kanpaina bat egitea eskatu du.	Udalak, 2014ko abenduan, kanpaina bat egin zuen herritarrak jabetzeko, herri osoarenak diren lekuak garbi eta txukun edukitzeko duten erantzukizunaz jabetzeko. "Zaindu Eibar" lelopean, lehenik eta behin herriko lorategi eta parke guztietan kartel bat jarri zen, herriko kaleetan txakur kakek sortzen duten arazoari aurre egiteko eta txakurren ugazabei hauxe ohartarazteko: euren txakurrak maitatzea ondo dagoela baina herritar senak kaleak garbi edukitzea ere eskatzen diela.
Hirigintza	Zezenbide kalean, Isasi ostean, beti zarata bat, txistu etengabe moduko bat, entzuten dela kexatu da pertsona bat.	Hirigintza Sailak espediente bat egin zuen horren inguruan eta ondorio honetara iritsi zen: txistu moduko hori Alboka tabernako sukaldetik zetorrela, eta hain zuzen ere, hango erauzgailuaren motorretik. Horrela, arazo hori konpontzeko asmoz, motor hartan erregulatzailer bat ipini da eta orain ez du zaratatik ateratzen. Edozein kasutan, behin betiko konponbide bat emateko, hemendik denbora gutxi barru zarata hori sortzen duen pieza aldatu egingo dute.
Obrak	Alde hartan oinezkoen pasabide goratu gehiago jartzea eskatu dute.	Azken urte hauetan hainbat pasabide goratu egin dira eta hemendik aurrera ere bide horretatik joko du Udalak, pasabide goratu gehiago egiten eta zaharrak araudi berrira egokitzen.

HERRITARREN PARTEHARTZEA.

BILERA. HERRIAREN ERDIALDEA.

EGUNA: 2014KO URRIAREN 10EAN

Proposamena, id.  
SAILA:

LABURPENA.

ERANTZUNA.

Zerbitzuak	Kexa sartu du Toribio Etxebarriako terrazetako batean, hain zuzen ere Birjiñape tabernakoan, lorontzi bat jarri dutelako.	Birjiñape tabernak lorontzia jartzeko baimena eskatu du eta eman zaio Hirigintzako zinegotziaren ebazpenez.
Udaltzaingoa.	Guridi aldean txikiteo orduan jende larregi egoten dela oharteman du.	Hirigintza sailak egin dezakeen gauza bakarra taberna barruetan dagoen pertsona-kopurua gainbegiratzea baino ez da, baina ezin da mugatu kalean dagoen pertsona-kopurua, terraza bat ez bada behintzat. Elkarbizitzako kontu bat da.
Udaltzaingoa.	Errebaleko aparkalekutik motoak eta bizikletak erretiratzea eskatu du.	Motoak dituztenek ere lekua behar izaten dute haiek aparkatzeko, beste ibilgailu mota batzuk dauzkatenez bezala.
Udaltzaingoa.	Zaraten kontuan Udaltzaingoa berak zerbait egitea eskatu du eta ez izatea beti auzokoak abisatzen ibili beharra dutenak.	Ostalaritzako establezimendu batetik zarata ateratzen delako sortzen diren kalteen espediente baten tramitazioari ekin ahal izateko, alde aurretik beharrezkoa da kexa bat jaso izatea eta kexa egin duen pertsona horren etxean zarata-neurketa bat egitea.
Zerbitzuak	Asteburuetan jendeak pixa edozein lekutan egiten duela-eta kexatu da, Fermin Calbeton kalean, Zezenbiden edo Egogainen esate baterako.	Kalean norbait pixa egiten ari dela ikusten bada, salatu egin behar da. Gauze lanean ari diren langileek hori kontrolatu egiten badu, baldin eta gainerako eginbeharrek horretarako denbora uzten badiete.
Zerbitzuak	Errebal kaleko 5aren eta 7aren aurrean usain txarra egoten dela esan du.	Saneamendu sare horrek bazituen akats batzuk, konpontzen joan izan direnak, baina gaur egun behintzat ezin da bermatu arazo hori % 100ean konponduta dagoenik. Baliteke etxebizitzan azpian hodiren bat

HERRITARREN PARTEHARTZEA.

BILERA. HERRIAREN ERDIALDEA.

EGUNA: 2014KO URRIAREN 10EAN

Proposamena, id.  
SAILA:

LABURPENA.

ERANTZUNA.

apurtuta egotea eta arazoa hortik etortzea. Jarraipen bat egiten ari da.

Zerbitzuak	Kartoiak edukiontzietatik kanpo lagatzeko zer horretan kontrol handiagoa eskatu dute.	Dendariei idatziz bidali zaie kartoiak zein ordutan atera behar dituzten, Udaltzaingoak eman die idatzia. Mankomunitateak, edukiontzietatik kanpo dauden kartoiak 13:30etatik 14:30etara bitartean jasotzen ditu; iluntzeetan 20:00tik aurrera.
Zerbitzuak	Untzagako dorrearen ostean altura larregi hartuko ez duten arbolak jartzea eskatu du.	Ez da uste premiazkoa denik orain daudenak kendu eta beste batzuk ipintzea. Arbolak sasoia denean inausi egingo dira, azken urte hauetan egin den moduan.
Zerbitzuak	Untzaga plazan, udaletxearen ondoan falta den eserleku bat jartzea eskatu du.	Aipatu duen eserleku hori jarri zen.
Zerbitzuak	Ipuruako Jubilatu Etxearen ondoan dagoen garaje baten irteeran jarritako pibote batzuk pintatzea eskatu du.	Hori ezin da egin garaje pribatu batekoak direlako eta komunitate hari dagokiolako haiek pintatzea.
Zerbitzuak	Arropa edukiontziak sarriago hustea eskatu du, jendeak arropak atera eta edukiontzien ondoan utzi ez ditzan.	Arropa-edukiontziak hilean behin husten dira, hala ere, beteta daudela ikusiz gero lehenago husten dira.
Zerbitzuak	Zezenbide kalean graffitiak garbitzea eskatu du.	Urte honetan egin dira hainbat grafiti garbitu dira, baina ez da izan alde guztietara heltzerik, eta horien artean, Zezenbide kalea dugu. Arrazoi horrengatik, geroago egingo diren garbiketetan kale hori kontuan hartuko da.

HERRITARREN PARTEHARTZEA.

BILERA. HERRIAREN ERDIALDEA.

EGUNA: 2014KO URRIAREN 10EAN

Proposamena, id.

SAILA:

LABURPENA.

ERANTZUNA.

Zerbitzuak

Untzaga kaleko 3ean, lurpean dagoen berde koloreko edukiontzi bat kentzea eta marroia jartzea eskatu du.

Mankomunitateari informazioa eskatu zaio organikoak biltzeko edukiontziak lurrazpian jar daitezen jakiteko. Hauxe azaldu digute: jartzeko orduan besteek baino askoz pisu gehiago izaten dutela (txapadunak dira, handiagoak), eta organikoak bete ondoren kamioak ezingo dituela jaso.

Zerbitzuak

Eskaera hau egin du: Calbetón kalea presiozko urarekin garbitzen denean, ura ez dadila sartu pegoretako ate azpietatik.

Mankomunitateari abisua pasatu zitzaion; hurrengorako, kontuan izango du.